

**2020KO EKAINAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia.

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta hogeia.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- AITOR ALDASORO ITURBE
- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL

- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

ETORRI GABEAK:

- MARIA ELENA RUIZ ZABALA

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA kontuhartzaileak ere parte hartu du.

Gaiak tratatzen hasi baino lehen Alkateak esan du, LGTBI mozioa bertan behera geratzen dela, eguna ospatzen zen pasada den iganderako hiru alderdien artean testu bat adostu zelako.

1.- AURREKO AKTA: Aurreko aktaren onespena: 2020-04-30.

Ezagutzera eman ondoren, 2020-05-28ko akta, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA: Aitor Urdangarin Irastorza. 2020IDBO0015

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Zinegotzi kargua hartzeko beharrezkoa da aurkeztea bateraezintasun eta ondasunen aitorpena. Aitor Urdangarin Irastorza jaunak, aurkeztu ditu eta horren ondorioz, zinegotzi karguaren jabetza har dezake. Horretarako, legalki ezarrita dagoen zine-egite formula baieztatu behar du."

Alkate jaunak, zin-egite formula irakurri dio, zinegotzi kargua hartu behar duenari, hau da: "Zin dagizu edota agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguak berekin dituen betebeharrak, Erregearekin leial izanez eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz?"

Aitor Urdangarin Irastorza jaunak: "Bai. Legeak hala behartuta, zin egiten dut."

Alkate jaunak (EAJ-PNV): "Beraz, Aitor Urdangarin Irastorza jaunak, Beasaingo Udalaren zinegotzi karguaren jabetza hartu du eta Beasaingo EH Bildu udal taldearen kide izatera pasatuko da."

3.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- ORDENANTZA FISKALAK 2020 URTEA. ERANSKINEN ALDAKETA.

Alkate jaunak batzordearen proposamenaren berri eman du:

Maiatzaren 12ko 3/2020 Foru Dekretu Arauak Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua aldatu du, osasun-krisiak gehien kaltetutako kolektiboen aldeko hobariak ezarri ahal izateko, eta honako hau ezarri du:

“3. artikulua. Hobariak tasetan.

1. 2020an, toki-erakundeek aparteko hobariak onartu ahal izango dituzte Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren II. tituluko III. kapituluko 3. atalaren arabera ezarritako udal-tasen zenbatekoaren gainean.

Hobari horiek Covid-19 gaitzaren osasun-krisiak eragindakoak izan beharko dira, eta krisi horrek bereziki kaltetutako kolektiboek aplikatu ahal izango zaizkie.

2. Artikulu honetan aipatzen diren hobariak 2020ko urtarrilaren 1era arteko atzera eragina izan ahalko dute.

Aipatutako eskumenaren baitan, Udalbatzari egiten zaio ondorengo

PROPOSAMENA

LEHENIK.- Ondorengo tasei buruzko eranskinak aldatzea adierazten den moduan.

1.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIKO TASAK

Zaborrak bildu eta tratatzeko zerbitzua.

2020ko ekitaldirako, %50eko hobaria ezartzea Covid19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, funtsezkoak ez izateagatiko, jarduera murriztua izan duten merkataritza eta zerbitzu sektoreko jardueren titularrentzat, beti ere jarduera burutzen duten helbidean JEZn alta emanda badaude (epigrafe baino gehiagotan alta emanda egonez gero, nahikoa izango da horietako batek ez izatea funtsezko izaera.

Hobariak, bere barnean hartzen du, "jendearentzako irekieraren etenaldian" egitate ezargarri gertatu ez izanaren hipotesia.

Hobaria 2. seihilekoari dagokion ordainketa epean gauzatuko da.

Hobaria subjektu pasiboak eskaera egin ondoren aplikatuko da, dokumentazio hau aurkeztuta:

- Funtsezkoa ez den jardueraren titularren izenean betetako eskabidea. I. eranskinean jasotako eredu normalizatuaren arabera.

- Jarduera alokatutako lokal batean egiten bada, maizterrak tasa ordaindu duela egiaztatu beharko da. Errentamendu kontratuaren bidez edo 2020ko lehen sei hilekoari dagokion tasaren ordainketa maizterrak egin duela egiaztatuz.

Eskabidea aurkezteko epea: 2020ko irailaren 1etik 15era.

Eskabidea eta erantsitako dokumentazioa errazago aurkezteko eta izapideak eta ebazpena arintzeko, eskabidea honako esteka honen bidez egin ahal izango da: www.beasain.eus.

2.- UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO PROBETXAMENDU BEREZIARENGATIKO TASAK

Mahai eta aulkiekin bide publikoa okupatzeagatik.

2020ko ekitaldirako, % 50eko hobaria ezartzea aipatutako okupaziorako lizentzia duten jardueren titularrei, jarduera horiek mugatuak izan baitira, Covid19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz. Hobariak, bere barnean hartzen du, "jendearentzako irekieraren etenaldian" egitate ezargarri gertatu ez izana.

Hobaria ofizioz aplikatuko zaie bide publikoa mahai eta aulkiekin okupatzeko lizentzien titular guztiei.

BIGARREN.- Hartutako erabakia G.A.O.ean, udal iragarkien taulan eta Lurralde Historikoko zabalkuntza handieneko egunkari batean argitaratuko da, jendaurrean egongo delarik 30 laneguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Epe hori iragan ondoren erreklamaziorik egon ez balitz, akordioa behin betirako onartutzat joko da eta testu osoa G.A.O.ean argitaratuko da eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarren, 2020ko urtarrilaren bateko atzera eraginarekin.

Epe horretan erreklamazioak aurkeztuko balira Udalbatzak ebatzi beharko lituzke

HOBARI ESKAERA

JARDUERAREN TITULARRA

Jarduera pertsona fisikoaren izenean badago: Izena eta bi abizenak	IFK
Jarduera enpresa baten izenean badago: Enpresaren izena	

JARDUERAREN HELBIDEA:

<i>Kalea</i>	<i>Zkia</i>
	<i>Lokala</i>

ORDEZKOA:

<i>Izena eta bi abizenak</i>	<i>NA</i>

JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO DATUAK

<i>Kalea, Zk. Solairua Aldea</i>	<i>P.K.</i>	<i>Herria</i>	<i>Lurraldea</i>
<i>e-posta</i>	<i>Telefono zk.</i>	<i>Sakelakoaren zk.</i>	
<i>Harremanetarako hizkuntza</i>	<i>EUSKARA ELEBIDUNA BILINGÜE</i>		

Eskaerarekin batera honako dokumentu hauek aurkezten ditut

- Jarduera pertsona fisikoaren izenean badago: NAren fotokopia

- Jarduera enpresa baten izenean badago: IFKaren fotokopia.

- Jarduera alokatutako lokal batean egiten bada, maizterrak tasa ordaindu duela egiaztatu beharko da. Errentamendu kontratuaren bidez edo 2020ko lehen sei hilekoari dagokion tasaren ordainketa maizterrak egin duela egiaztatuz.

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek proposamenarekiko ondorengoa iritzia aurkeztu dituzte:

Eva Alvarez andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estamos a favor. Son parte de las medidas acordadas para paliar la situación de crisis económica creada por la pandemia del COVID-19.”

Hasier Agirre jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Gu ere printzipioz ados gaude, adostutakoa delako. Hobariak direla eta ez dakiguna da 2021erako ere planteatzen diren hobariak horiek edo zain egin beharrean gauden. Azken finean. zein aurreikuspen dagoen galdetzen dugu.”

Alkate (EAJ-PNV): “Egunez egun baldintzak aldatzen ari dira eta urtea amaitzeko sei hilabete falta direnean, datorren urtean zer izango den..., espero dugu horrelako neurririk hartu behar ez izatea. Alde batetik ez kobratzea da, baina hori bezain garrantzitsua da jabari publikoaren kasuan, azalera gehiago hartzea. Oraingoz abendu arte iristen gara. Hori da jarri dugun muga.”

Hasier Agirre jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Esan baita ere kontuan izan behar direla bizilagunak.”

Alkate (EAJ-PNV): “Hori kasu guztietan. Aurrera hartu behar diogu. Badaude taberna batzuk terrazarik ez zutenak eta beste batzuk pasoa oztopatzen dutenak eta bizilagunentzat oztupoak badira, kendu egin beharko dituzte. Gehienak errespetatu egiten dute baina horrezaz gain terrazetan jendea egoteagatik sortzen den hotsa da beste arazo bat.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

b.- COVID19AREN ONDORIOEI AURRE EGITEKO NEURRIEI DAGOZKIEN KREDITU GEHIGARRIAK ONARTZEKO B20/0473 EBAZPENAREN BALIOZKOTZE PROPOSAMENA. 2020CRAD0006

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, hots:

“AURREKARIAK

1.- Maiatzaren 12ko, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsagatik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen 3/2020 Foru Dekretu Arauak bere 2. Artikuluan kreditu gehigarriak onartzeko, ondorengo aparteko araubidea ezartzen du:

“1. Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak.

2. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara tzea.”

2.- COVID19aren efektuei aurre egiteko neurriei buruz, diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeko ondorengo kreditu gehigarriak onartu dira B20/0473 Alkatearen Ebazpenaren bidez:

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
0390.221.311.00.08	Maskarilak COVID 19	13.000,00	45.000,00	58.000,00
GUZTIRA		13.000,00	45.000,00	58.000,00

Aipatutako artikularen 2. atalean xedatutakoa kontutan izanik, Udalbatzari egiten zaio ondorengo

PROPOSAMENA

Lehenik.- B20/0473 Alkatearen ebazpena baliozkotzea.

Bigarren.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira proposamenarekiko:

Hasier Agirre jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Hemen ere hausnarketa txiki bat. Musukoak boluntario bidez banatzearen harira esan, ez dugula ulertzen boluntario modura ari eta gero trukean saria (kamisetak) jasotzea. Horrek azkenean gastu bat suposatu du eta ez dakit kopuru honetan aurreikusita dagoen ala ez. Printzipioz ados gaude musukoen ekimen honekin.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Esan, kamisetarena musukoak erosi genionaren inizatiba eta bere kontura izan dela, zeren eta guk ere irizpide berdina genuen. Berak horrela nahi izan zuen eta guri eman dizkigu. Guk esker on bezala, zerbait ordaindu dugu bonoak banatuz. Bonoak jarri dira gazteen eskura herrian gastatu dezaten.”

Hasier Agirre jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Bonoarena iruditzen zaigu gehiago behar duen jendea egon dakikeela herrian.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Bonoak bigarren aldiz ere dendei eman zaie. Sobratu diren bonoak ustez gehiena behar duten dendei helaraziko zaie. 50-60 bono gazteei eskura ematea ekimen txarra ez dela iruditzen zaigu.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu da.

c.- COVID19AREN ONDORIOEI AURRE EGITEKO NEURRIEI DAGOZKIEN KREDITU GEHIGARRIAK ONARTZEKO B20/0529 EBAZPENAREN BALIOZKOTZE PROPOSAMENA. 2020CRAD0007

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, hots:

“AURREKARIAK

1.- Maiatzaren 12ko, Udalak Finantzatzeko Foru Funtsagatik 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen 3/2020 Foru Dekretu Arauak bere 2. Artikuluan kreditu gehigarriak onartzeko, ondorengo aparteko araubidea ezartzen du:

“1. Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak toki korporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipatzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak.

2. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.”

2.- COVID19aren efektuei aurre egiteko neurriei buruz, diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako ondorengo kreditu gehigarriak onartu dira B20/0529 Alkatearen Ebazpenaren bidez:

Aurrekontuko kontu saila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
0110.227.150.00.07	Hirigintzako aholkularitza teknikoa	8.150,00	6.981,00	6.981,00
0110.227.311.00.99		0,00	4.427,00	4.427,00
Indemnitaz. kontratu etenak COVID19				
GUZTIRA		8.150,00	11.408,00	11.408,00

Aipatutako artikulua 2. atalean xedatutakoa kontutan izanik, Udalbatzari egiten zaio ondorengo

PROPOSAMENA

Lehenik, - B20/05293 Alkatearen ebazpena baliozkotzea.

Bigarren, - Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzea.”

Proposamenarekiko iritzirik azaldu ez denez, bozketa egin da eta aho batez onartu da.

d.- KONTRATUAREN LUZAPENA: BEASAINGO UDALAREN ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOEN. 2018PEBO0026

Ezagutzera eman da, Antolakuntza batzordearen proposamena:

“Gaia: Kontratuak luzatzea.

AURREKARIAK

I.- 2018-04-26. Udalbatza Osoaren erabakia lizitazio prozedura eta plegu administratibo nahiz tekniko onartzeari buruzkoa, Beasaingo Udalaren eta bere erakunde autonomoen aseguruak kontratatzeko.

II.- 2018-06-28. Lizitazio prozedura burutu ondoren, Udalbatza Osoak erabaki zuen, Aseguru pribatuen 1, 2, 3 eta 4 zatiak, hau da, higiezin eta higigarriei kalteak, erantzukizun zibila, ibilgailuak eta erraldoi eta buruhandi konpartsari asistentzia sanitarioa ematea ondorengoari esleitzea: SEGUROS LAGUN ARO, S.A.ri . esleitzea eta Aseguru pribatuen 5. zatia, hau da, kargu publiko eta enplegatuen erantzukizun zibil profesionala; ondorengoari esleitzea: AIG EUROPE LIMITED SUCURSAL EN ESPAÑA.

III.- Lizitatuzaileek Kontratu Legearen 150. artikuluan aurreikusitako dokumentuak aurkeztu ondoren, Alkateak (plenoak horretarako baimena eman da), uztailaren 24an Ebazpena eman zuen behin betiko esleipena eginez.

IV.- 2018-08-21ean, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.rekin eta AIG EUROPE LIMITED SUCURSAL EN ESPAÑA zegozkion kontratuak sinatu ziren. Bi kasutan egikaritze epea ondorengo izanik: bi urtekoa, 2018ko IRAILAREN 1etik kontatzen hasita, baina kontratua beste hiru urtetan luzatzeko aukerarekin. Luzapenak urte betekoak izatea aurreikusten da eta espresuki kontratazio organoarekin adostuak izan beharko dira. Enpresariarentzat derrigorrezkoak izango dira, beti ere, bere aurre-abisua kontratuaren iraupen epea amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada.

V.- 2018-10-30ean, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.rekin kontratua aldatzen da, aseguratutako ondasunen artean Loinatz futbol zelaia aurreikusteko. Gehitutako ondasunagatik primaren kostua, 1.071,62 €koa da. Ondasun aseguruaren prima 2019-09-01eraino, 36.735,25 €koa da. Hurrengo ekitaldietarako, aldiz, 36.794,06 €koa izango da.

VI.- Kontratuak, 2020-08-31ean amaitzen dira eta Kontratuaren arduradunak (Antolakuntza eta GGBB arduraduna), 2020-05-27an txostena eman du adieraziz ezarritako helburuak behar bezala eta osorik bete direla eta kontratua beste urtebetez luzatzea proposatzen dela. Bestalde Idazkaritzak 2020-06-04 txosten eman du adieraziz zilegi dela kontratua luzatzea beste urte betez, baina kontratuen bi aldeek artean adostuak izan beharko direla. Enpresariarentzat derrigorrezkoa izateko, aurre-abisua kontratuaren iraupen epea amaitu baino bi hilabete lehenago egin behar da.

IV.- Baldintza pleguaren 6. artikulua arabera, prezioa berrikusteko aukerarik ez dago. Primaren kopurua bakarrik aldatuko da aseguraturako ondasunen kopuru aldaketak daudenean, (bajak eta gehitzeak), edota Udal aurrekontuko Quantuma aldatzen denean kontratazio organoak ekintza honetarako ahalbidetu duen Alkatearen aurretiatzko onarpen espresarekin.

OINARRI JURIDIKOAK

Kasu honetan, azaroaren 14ko 30/2011 Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duen Kontratu Legea aplikatu behar da (29. artikulua). Luzapena aurreikusita egon behar da eta espresuki erabakia hartu behar da. Ezin dena da, tazituki luzatzea. Luzapena IV. Aurrekarietan esanda bezala, baldintza administratibo pleguaren 2. artikuluan eta kontratuetan aurreikusia dago.

Beraz, Antolakuntza batzordeak, kontuan izanik, luzapena, organo kontratatzaileak berariaz onartu behar duela, Udalbatza osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 2018-08-21ean, SEGUROS LAGUN ARO, S.A.rekin eta AIG EUROPE LIMITED SUCURSAL EN ESPAÑA sinatutako kontratuak egikaritze epea ondorengo izanik: bi urtekoa, 2018ko IRAILAREN 1etik kontatzen hasita, kontratua luzatu egingo da beste urtebete. Luzapena espresuki kontratazio organoarekin adostuak izan beharko dira. Enpresariarentzat derrigorrezkoak izango dira, beti ere, bere aurre-abisua kontratuaren iraupen epea amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada.

Bigarren. Luzapenaren epea urtebetekoa izatea, hau da, 2021ko abuztuaren 31 arte.

Hirugarren. Alkateari baimena ematea, kontratuaren luzapena sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek ez dute inolako iritzirik aurkeztu proposamenarekiko.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

4.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- EUSKALTEGIETAN EUSKARA IKASTEN ARI DIREN HERRITARREI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA.
2020ESEP0006

Ezagutzera eman da Herritarrak batzordearen proposamen, hots:

“AURREKARIAK:

Ondorengoak kontuan hartuta:

- 1. Udalak behin betiko onartuta duela 2020-2022 epealdirako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.*
- 2. Aipatutako planeko helburu estrategikoetako bat euskararen ikaskuntza eta erabileraren sustapena dela.*
- 3.*

Une honetan, 2020-2021 ikasturterako oinarriak onartu behar dira.

LEGERIA APLIKAGARRIA

-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrak batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten dio:

Lehenik: *2020-2021 ikasturtean euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei diru-laguntzak emateko oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritziz hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Batzordean aipatu genuen gure zalantza ez dugulako ulertzen diru laguntzak mailaren arabera izatea. Esan zitzaigun tituluagatik, 1. mailatan jende gehiago zegoelako eta HABEk ematen dituen diru laguntzarekin bateragarriak direla. Horrela da baina HABEk diru laguntzak ematen ditu bermatzen bada mailatan aurrera joatea. Guri iruditzen zaigu Beasaingo Udalak apustu sendoago bat egin behar duela eta euskararen doakotasuna bultzatu. Horretarako aukera ekonomikoa badugu. Gure helburua ez da titulua lortzea baizik eta euskararen erabilera bat lortzea. Kasu praktikoa badugu, izan ere haurretan hori egiten dugu. Euskara errefortzua dugu eta doako zerbitzua da. Helduekin zergatik ez dugu berdina egiten?”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Helburuari bakarrik ez zaio begiratu behar. Historiak ere arrazoia ematen dio zergatik iritsi garen orain planteatzen den egoerara. B2 maila arte pausoak ematea errazagoa da eta baita ere egia da bertan parte hartzen dutenek noiz naiz uzten dutela, euskaltegira ez direla joaten, etab. Diru laguntza zergatik ematen da bukaeran eta ez hasieran?. Hasieran eman ezker, abendurako ikaslerik gabe aurkitzen zara edo ikasle gutxiekin. HABEk berez, esaten du aula bakoitzeko gutxienez 7 ikasle behar direla eta hasiera diru laguntza eman ezker, hori ez betetzea gertatu liteke. Haurrak, hala beharrez, gu baino txintxoagoak dira, sendotasunez joaten dira hasieratik bukaerara. Jendeari erraztu egin behar zaio baina jende horrek ere erantzun egin behar du, bestela euskaltegiko estruktura jasan ezina da.”

Nerea Manzisidor andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gu aukera ematen ari gara benetan euskal hiztunek izatea nahi badugu. Oker ez banago zaharren egoitzan euskarazko klasean ematen zitzaienean, uste dut zerbait sinbolikoa ordaintzen zutela eta gero bueltatu egiten zitzaiela. Ez dugu partekatzen dagoen moduan.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Baina 5 ikasleekin adibidez euskaltegiko estruktura ezin da mantendu. Tasa bat kobratzen duzunean, kostua ere aintzakotzat hartu behar da. Dohain ere izan daitezke, baina orain arte egindako bideak eskaintza hau ematea eramaten gaitu. Iruditzen zaigu funtzionatzen duela eta egonkortasuna ematen diola Euskaltegiari. Gure proposamena hau da. Zaharren egoitzan urte baten dohain eskaini zitzaien bain bigarren urtean Udala sartu behar izan zen. AEK dohain emateko prest ez zegoen. Ezin da konparatu euskaltegian ematen den trinkotasuna, zaharren egoitzan ematen denarekin. Helburu orokorra euskara ikastea da. Beste gauza bat da klaseak nola ematen dituzun. Ez dut uste doakotasunak emango ligukeenik jende gehiago euskara ikastea joatea. Arazoak dituenari laguntzen zaio. Beasainen dirua ez da arazoa euskara ikasteko.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Aurkako botoak: 5 (Beasaingo EH Bildu)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin oinarri hauek onartu dira:

“Euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei diru laguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarriak

Beasaingo Udalaren eskumenen artean dago “bere lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzea eta erabilera dinamizatzea” eta esparru honetan Beasaingo herritarren euskalduntzea sustatzen du.

1.- XEDEA

2020-2021 ikasturtean euskara ikasten diharduten herritarrei diru laguntzak emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea. HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira, eta horretarako HABEk ikasturtero ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

2.- FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako diru laguntzak ordaintzeko Udalak kreditua dauka aurreikusita helburu horretarako sortutako 0230.480.335.30.01 (131), 1 0231.480.335.10.01 (16) eta 1 0231.480.335.10.02 (15) kontu-sailetan.

3.- ONURADUNAK

Diru laguntza hauek eskatzeko ondorengo baldintzak bete behar dira:

- a) 16 urtetik gora izatea diru-laguntzako xede den ikastaroa amaitzen duten datarako.
- b) Beasainen erroldatuta egotea diru-laguntzako xede den ikastaroa egiten duten bitartean.

Azaroaren 17an onaturiko diru laguntzen 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsonak edo erakundeek ezingo dituzte jaso diru laguntza hauen onurak.

Norbanakoek ezin izango dute diru-laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo udalarekin edo haren mendeko erakunde autonomoekin dituzten zorreatatik behartze bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango dela zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa bertan behera utzita egotea.

4.- DIRULAGUNTZA LORTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- a) Eskabidea behar bezala beteta eta nahitaezko dokumentazioa dagozkien epeen barruan aurkeztea.
- b) Ikastaroa amaitzerako matrikula ordainduta izatea. Ordainketaren gaineko informazioa dagokion euskaltegiak egiaztatuko du ikastaro amaierako ebaluazio txostenean.
- c) Euskarazko ikastaroan gutxienez %85eko asistentzia egiaztatzea. Langabetuentzako diru-laguntza eskatzaileek %90eko asistentzia egiaztatu beharko dute. Horretarako, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data hartuko dira kontuan.

5.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak eta eskatzaileari horren berri jakinaraziko zaio.

Ordainketa Alkateak diru-laguntzaren Ebazpena idazten duenetik hilabeteko epean egingo da.

- Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartean egiten direnak), hurrengo irailean.
- Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartean egiten direnak), abenduan.

6.- DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan Udalari jakinarazi beharko zaio. Hala ere, ezin daiteke inolaz ere gain-finantzazio kasurik izan; hau da, beste entitateekin batera emandako diru-laguntza kopurua ezin da gastuaren balioa baino handiagoa izan.

7.- DIRUZ LAGUNDUKO DEN GASTUA ETA DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Bi diru-laguntza mota egongo dira, eta bata bestea baztertzen du:

a) Orokorrak:

Diru-laguntzaren zenbatekoa honakoa izango da:

*-A1, A2, B1 eta B2 mailetako ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %75.
C1 eta C2 ikastaroetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %50.*

b) Ikastaroak irauten duen bitartean langabezian dauden ikasleek ordaindutako matrikularen %100 jasoko dute.

Barnetegian ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako.

8.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- Guztiek aurkeztu beharrekoak:

- a) Diru-laguntza eskatzeko inprimakia sinatuta. (I. eranskina)*
- b) Helburu honetarako diru-laguntzak jasotzeko buruzko zinpeko aitortpena.*
- c) Matrikula-ordainagiria. Beti ere, ez bada Beasaingo Udal Euskaltegian ikasi.*
- d) Euskaltegiaren ziurtagiria, asistentziaren zenbatekoa, maila bakoitzari dagozkion azterketak egin izana eta errendimendua zuzena izan den azalduko dituen. Beti ere, ez badu Beasaingo Udal Euskaltegian ikasi.*
- e) NAren fotokopia*
- f) Kontu korronte zenbakia (IBANa eta 20 zifra).*
- g) Huts egiteak justifikatzeko agiriak. Huts egiteak justifikatzeko ondorengo agiriak bakarrik onartuko dira:*

a. LANBIDEk deitu izanaren ziurtagiria

b. Medikueengana joan izanaren ziurtagiria

2.- Langabezian dauden ikasleek aurrekoek gain Gizarte Segurantzako lan bizitzaren agiria aurkeztu behar dute:

9.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita eskabideak aurkeztu ahal izango dira.

Eskatzaileak ikastaroa amaitu ondoren egin beharko du diru-laguntza eskabidea.

Epea: Eskabideak aurkeztu ahal izango dira oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta horiek aurkezteko epea 2021ko urriaren 30ean amaituko da.

Modua: Diru-laguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, bertan agertzen diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: <https://www.beasain.eus/bulego-birtuala> edo Udalaren erregistroan, l.eranskineko ereduaren arabera. “

b.- BEASAINGO LOINATZ EGUNEKO ZENTROKO IREKIERA ETA KONTRATU ALDAKETA. 2016BIBO0028

Ezagutzera eman da ondorengo proposamena:

“AURREKARIAK

1- 2016-11-07. Beasaingo Udalaren eta GOXARA, S.L.ren arteko administrazio-kontratuaren sinadura, mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako Loinatz eguneko zentroaren erabilera- eta kudeaketa-zerbitzua emateko eta Beasainen etxez etxeko laguntza-zerbitzua eskaintzeko.

Beasaingo Udalaren eta GOXARA, S.L.ren arteko administrazio-kontratua egitea, mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako Loinatz zentroko erabilera- eta kudeaketa-zerbitzua emateko eta Beasainen etxez etxeko laguntza-zerbitzua eskaintzeko.

2- 2020-03-13. Egun horretan, erabiltzaile kopurua honako hau zen: 18 lanegunetan, 9 asteburuetan eta jaiegunetan, eta pertsona 1 asteburuetan eta jaiegunetan, Sendian programaren bidez.

3.- 2020-04-08. Alarma egoera aitortu izanaren arabera, Plenoak kontratua partzialki eteten du, hau da:

“Kontratuan eragina dute ondorengoek: 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikulua (pertsonen zirkulazio-askatasuna mugatzen da, a) eta h) bitarteko paragrafoetan zerrendatutako jarduerak egiteko izan ezik), eta 10 artikulua (agintari eskudunaren iritziz kutsatzeko arriskua ekar dezakeen edozein jarduera edo establezimenduen etetea).

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Osasuneko Sailburuak, 2020-03-14ko Aginduaren

bidez, adinekoentzako eguneko zentroak ixtea erabaki zuen prebentzio-neurri gisa, 2020-03-15etik alarma egoera amaitu arte.

Enpresa kontratistak, 2020-03-27an, behar bezala arrazoitutako idazkien bidez eta 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34. artikulua aurreikusten dituen baldintza guztiak aipatuz, honako hau eskatzen du:

- Kontratua etetea, "Eguneko Zentroaren" zerbitzua emateari dagokionez.
- Kontratua etetea, "Etxez Etxeko Laguntza-zerbitzua" emateari dagokionez, ezin izan baita zerbitzua eman 2020-03-17tik 2020-03-25era arte, biak barne.

2020-04-8an, ordea, beste bi idazki aurkeztu zituen adierazitako zerbitzuei buruz:

- Eguneko zentroko zerbitzua: eguneko zentroko langileek etxez etxeko laguntza-zerbitzua ematearen alde agertzen da.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua: zerbitzuaren murrizketa 2020-03-17tik 2020-03-25era, erabiltzaileen bajagatik.

Azken hau gizarte-laguntzaileak egindako txostenean berresten da, izan ere ondorengo adierazten du: 2020-03-17tik 2020-03-25era, 7-9 pertsonen etxez etxeko laguntza-zerbitzua emateaz gain, etxe babestuetan daudenei ere eman zitzaion.

Ondorioz, kontratua partzialki etetea onartzen da, hau da:

- Eguneko Zentroko zerbitzua, osotasunean. Etetea 2020-03-15etik aurrera izango da (Sailburuaren Agindua indarrean sartu zenetik), osasun-krisia amaitu arte.
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua: ez da eteten."

4.- 2020-05-09. Maiatzaren 9ko SND/399/2020 Agindua, nazio egoeran murrizketa batzuk malgutzeko. Murrizketa horiek alarma egoera aitortu zenean ezarri ziren eta normaltasun berrira igarotzeko planaren 1. fasea aplikatuz malgutzen dira. 17. artikuluan ondorengo jasotzen da: Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak onartutako Gizarte Zerbitzuen Erreferentzia Katalogoan jasotako zerbitzu eta prestazio guztiak benetan ematen direla bermatu beharko dute gizarte-zerbitzuek.

Horretarako, autonomia-erkidegoetako agintaritza eskudunek erabaki ahal izango dute zerbitzu eta prestazio horiek ematen diren zentroak eta zerbitzuak berriz zabaltzea, zentro edo zerbitzu bakoitzaren egoera epidemiologikoa eta dagokion osasun-sistemaren erantzuteko gaitasuna kontuan hartuta.

5.- 2020-05-20. Gipuzkoako Foru Aldundiak foru-eskumeneko gizarte-zerbitzuen errealitate berrira egokitzeari buruzko plana aurkeztu zuen, foru-eskumeneko zerbitzuen prestazioa pixkanaka berreskuratzea modu koordinatu, ordenatu, koherente eta prebentiboan bermatzeko, eta eguneko zentroen irekiera mailakatua baimendu zuen (eskumena Foru Aldundiarena da) ekainaren 8tik aurrera, murrizketa eta betebeharrak batzuekin:

- Zerbitzua lanegunetan bakarrik eman daiteke.

- Baimendutako erabiltzaileen gehieneko kopurua: % 70. (Loinatz Eguneko Zentroan segurtasun eta babes ratioak ziurtatzeko kontuan hartuta).

- Gipuzkoako Foru Aldundiak zentroen kontingentzia- eta egokitzearen-plan bat onartu behar du.

6.- 2020-06-17 Gipuzkoako Foru Aldundiaren komunikazioa jasotzen dugu. Eguneko zentroen irekieratik egun batzuk igaro direnez, eta gomendio berriak garatu direla kontutan hartuta, egokia iruditzen zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari errealitate berrira iristeko pausoak ematen jarraitzea.

Gauzak horrela, honako hau erabaki du:

- Ekainaren 20tik aurrera aste buruak eta jai egunetan zerbitzua ireki ahal izatea.

- Ekainaren 22tik aurrera erabiltzaile berriak artatu ahal izango dira. (beti ere babes neurriak ziurtatzeko ratioak kontuan izanda).

- Garraiorako hartutako neurriak egokitzea 2020ko ekainaren 15ean BOEn (13,14,15 orr) mugikortasun segurua bermatzeko zehazten diren baldintzak kontutan hartuta.

7.- Ondorioa: Loinatz eguneko zentroko erabiltzaileen kopurua ezin da berdina izan, baina, zerbitzua eskaintzeko hartu beharreko prebentzio- eta segurtasun-neurriak kontuan hartuta, langile kopuru bera (6) erabili behar da, hau da. zerbitzua baldintza normaletan ematen zenean bezala.

8.- Hori dela eta COVID-19k eragindako osasun-krisiak eragin duen oztopo ekonomikoagatik, kontratistak eskatu du, zentroa berriz ireki eta zerbitzua 5. puntuan adierazitako baldintzetan

martxan jarri ondoren, ordaindu beharreko prezioa 2020-03-13an eguneko zentroko erabiltzaileen kopuruaren arabera izatea (18 pertsona lanegunetan eta 10 asteburuan eta jaiegunetan).

Eta hori, nahiz eta zerbitzua 12 pertsonari eskainiko zaien lanegunetan (% 70), eta momentu honetan 6 pertsonari asteburuetan eta jai egunetan (Asteburuetarako eta jaiegunetarako itundutako plazak 12 dira, baina Aldundiak ezarritako murrizketen ondorioz (adibidez, joan-etorriak kontrolatzeko arazoak), erabiltzaile batzuek ezin dute oraingo zerbitzua erabili).

LEGERI APLIKAGARRIA

3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginarena. 107. artikulua: kontratuan aurreikusten ez diren aldaketak.

Horren ondorioz, aurrekari, oinarri juridikoak eta Idazkaritza eta Kontuhartzailatzako aldeko txostenak kontuan izanda, Herritarrak batzordeak ondorengo erabaki proposamena egiten dio Udalbatza Osoari:

Lehenik- 2020-04-08ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartutako kontratuaren etenaldia altxatzea Eguneko Zentroari dagokionez. Hura berriro irekitzea ahalbidetzea, beharrezko babes-neurriak hartu ondoren.

Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio Udalari zerbitzua noiz jarri den martxan.

Bigarren.- Jarraian aipatzen den moduan, kontratua aldatzea, eguneko zentroaren prestazioetatik ordaindu beharreko prezioa ezartzeko irizpideari dagokionez:

Loinatz Eguneko Zentroa berriz irekitzen denetik (ziurrenik, ekainea) Gipuzkoako Foru Aldundiak zentroen ohiko erabileraren ehunekoa % 100ean baimentzen duen arte, Beasaingo Udalak erreferentzia gisa hartuko du Goxara SLri Eguneko Zentroaren kudeaketa zerbitzuagatik ordaintzeko, 2020/03/13an zeuden erabiltzaile kopurua (18 pertsona lanegunetan eta 10 asteburuan eta jaiegunetan).

Hirugarren. Erabaki hau kontratistari helaraztea, eta erabakiaren aurka jar daitezkeen errekursoak adieraztea.”

Malu Valles zinegotzi andreak (EAJ-PNV): “Además de lo ya señalado en la propuesta decir que, Diputación ha permitido abrir el Centro pero con un plan de contingencia y manteniendo una distancia de metro y medio entre los usuarios. Se han colocado manparas y una alfombra para los pies y se has establecido unos protocolos exhaustivos de limpieza de manos y de estancia. Esto hace que el centro de día vaya a reanudar sus servicios con 12 usuarios entre semana y 6 el fin de semana para ir aumentando poco a poco el número de usuarios y llegar al 100%. El problema al que

nos enfrentamos es que alguno de los usuarios tiende a la deambulaci3n, es decir, que por sus circunstancias psicol3gicas tienden a no mantenerse quietos. Ah3 es donde hay que tener mucho cuidado. Tanto a los usuarios como a las trabajadoras se les realizar3n los PCRs.”

Bozketa egin da eta aho batez onartu da proposamena.

5.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- KONTRATUAREN EPEA LUZATZEA. SAN MARTIN PLAZAREN BEHEKO ALDEAN, KALE NAGUSAIREN ONDOAN DAGOEN LOKALA PRESTATZEA, OSTALARITZARAKO ERABILTZEKO ETA HORRETARAKO USTIATZEKO. 2010IDBO0009

Ezagutzera eman da ondorengo proposamena:

“AURREKARIAK

1.- 2020-11-10ean, kontratu administratiboa sinatu zen ARDOA ETA AZOKA, S.L.rekin San Martin plaza behean, kale Nagusiaren ondoan dagoen lokala ostalaritzarako egokitzeko eta jarraian ustiatzeko.

2.- 2020-04-08an, Udalbatza Osoak ondorengo erabakia hartu zuen:

“Kontratuan eragina dute ondorengoek: 463/2020 Errege Dekretuaren 7. artikulua (pertsonek zirkulazio-askatasuna mugatzen da, a) eta h) bitarteko paragrafoetan zerrendatutako jarduerak egiteko izan ezik), eta 10 artikulua (publikoari irekitako jarduerak ixtea, Eranskinean adierazitakoak: kafeteria, taberna eta antzekoak)

Kontratistak, 2020-04-3ko idazkiaren bidez, kontratua eteteko eskatu du, jarduera itxi behar izan duelako, COVID-19k eragindako osasun publikoko larrialdi-egoeragatik. Adierazten du horrekin eten egin direla Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko lan-kontratuak eta autonomoen erregimeneko alta (administratzailea).

Kasu honetan ere eskaerak ez du betetzen, 8/2020ko Errege Dekretu Legearen 34. artikuluan aipatutako baldintzak, baina aipatutako arrazoiak direla medio, begien bistakoa da kontratua egikaritzea ezinezkoa dela.

Jarduera etetearekin, begien bistakoa da ezinezkoa dela kontratua egikaritzea. Horren ondorioz, kontratua eteteko eskaera onartu egiten da. Etetea, 2020-03-14tik osasun-krisia amaitu arte izango da.

Hala ere, kontuan hartu behar da, kasu honetan, kontratuak ez duela aurreikusten alderdi kontratugileetako inorentzat kontraprestazio ekonomikorik. Beraz, kontratua eteteak ez dakar nahitaez kalte-galerengatik kalte-ordaina aitortzea.”

OINARRI JURIDKOAK

- maiatzaren 9ko SND/399/2020 Aginduaren eta maiatzaren 9ko 8/2020 Dekretuaren babesean, pertsonen zirkulazio-askatasuna malgutzen da, eta baimena ematen da

“minorista” merkataritza-establezimenduak eta -lokalak berriro irekitzeko eta antzeko zerbitzuak emateko, baldintza jakin batzuetan.

- 8/2020 EDLaren 34,2 ondorengo aukera ematen du:

En los contratos públicos de servicios y de suministro distintos de los referidos en el apartado anterior, vigentes a la entrada en vigor de este real decreto ley, celebrados por las entidades pertenecientes al Sector Público en el sentido definido en el artículo 3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, siempre y cuando éstos no hubieran perdido su finalidad como consecuencia de la situación de hecho creada por el COVID-19, cuando el contratista incurra en demora en el cumplimiento de los plazos previstos en el contrato como consecuencia del COVID-19 o las medidas adoptadas por el Estado, las comunidades autónomas o la Administración local para combatirlo, y el mismo ofrezca el cumplimiento de sus compromisos si se le amplía el plazo inicial o la prórroga en curso, el órgano de contratación se lo concederá, dándole un plazo que será, por lo menos, igual al tiempo perdido por el motivo mencionado, a no ser que el contratista pidiese otro menor.

Aipatutako aurrekari eta oinarri juridikoen arabera, Lurralde Batzordeak ondorengo erabaki-proposamena egiten dio Udalbatza Osoari:

Lehenik. San Martin plazaren beheko aldean, kale nagusiaren ondoan, dagoen lokala prestatzea, ostalaritzarako erabiltzeko eta horretarako ustiatzeko kontratua aldatzea egikaritze epeari dagokionez. Beste bi hilabete eta erdi luzatzen da epea eta horren ondorioz, kontratuaren amaiera ondorengo izango litzateke: 2021-01-31.

Kontratuaren beste estipulazioak ez dira aldatzen.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren proposamenarekiko iritziz hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor zinegotzi andreak (Beasaingo EH Bildu): “kontratua luzatzearekin ados gaude, baina ez dakiguna da langileekiko hizkuntza eskakizunik eskatzen den. Udalaren establezimendua izanda euskaldunon eskubideak bermatu beharko lirateke. Berriro lehiaketa egiten denean, xehetasun hau partekatu egin beharko genuke eta beharbada langileei euskara ikasteko aukera eman .”

Alkatea jaunak (EAJ-PNV): “Zerbitzua ematen hasi zirenak, zorionez euskara bazekiten. Bilakaerak eraman gaitu gauden egoerara. Batzuk ulertzen dute, beste batzuk nekez eta beste batzuk gai dira euskaraz egiteko. Jarraipena egin beharko zaio.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

6.- MOZIOA. Beasaingo EH Bilduren mozioa: LGTBiko nazioarteko egunaren mozioa.

Bileraren hasieran esanda bezala, gai hau mahai gainean geratu da.

7.- BERRI EMATEA:

- 2020ko maiatzaren 22tik ekainaren 21era bitarte emandako Ebazpenak.

- Kontratu txikiei buruz, 2020ko maiatzaren 22tik ekainaren 21era bitarte emandako ebazpenak.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Hasier Agirrek (Beasaingo EH Bildu) hitza eskatu du eta ondorengo galdetu du: “Ebazpenetan azaltzen da “Ofizial ondoko burua” meritu espezifikoaren lehiaketa egitea. Horri buruzko informazioa jaso nahi da.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Brigadako langilea da, lanpostuen zerrendan onartutakoa.”

Jarraian Alkate jaunak ondorengo adierazi du: “Aurreko plenoan, telematikoa modura egin genuen plenoan, salaketa jaso genuen erabiltzen dugun estiloari buruz, krisi-mahaia osatu nahi ez izan genuelako. Adibide gisa, Azpeiti, Zizurkil eta Zumaia aipatu ziren. Kuriosidadegatik horietara jo nuen, ikasteko bada ere. Ikusi dudana da, estetikatik asko eta muinean gutxi. Azpeitian gobernu kontseilua omen dute eta gure hori erabiltzeko omen dago eta behin bakarrik ere ez omen dira elkartu eta alarma egoerak iraun duen bitartean pleno bakarria egin omen da eta 600.000 €ko diru laguntza Dekretu baten bidez onartu da Alkatea kontuhartzailearekin bilduta. Esan zitzaidan oposiziokoek hartutako jarrera izan dela pandemia ez erabiltzea politika egiteko eta hortik omen dator babesa. Zizurkilean krisi-mahaia osatu dute, baina bakarrik gobernu taldearekin eta egindakoarekin korreo bat bidaltzen zitzaion oposiziokoei. Bileran telematikoa eta horrelakoak batez. Zumaian emergentzi mahaia osatu zuten. Hasieran astero elkartzen ziren eta gerora hamabostean behin elkartu omen dira. Guk ez dugu krisi mahaia osatu. Dugun estruktura aprobetxatu dugu. Konstziente zarete egunetik egunera erabakiak hartu beharrean izan dela eta beste batzuk hartzen zituzten erabakiak egokitzen nahiko lan izan dugu. Kontatzen aritu naiz eta 12 astetan gutxienez 16 bileran egin ditugu eta askotan oposizioak proposatutako ideiak martxan jarri dira. Bai, estilo kontua da, baina estilo kontua da gobernuarena eta estilo kontua da baita ere oposizioarena eta oposizioak ez du beste herrietan bezala jokatu. Adibide gisa esan, merkatarien kasuan ez dugula ezer inbentatu baina ildo nagusietan behintzat, denok ados geundenak hartu ditugu. Hor kontua da interes partikularrak orokorraren gainetik jartzen diren ala ez. Nik uste dut informazio eta borondate falta ezin zaigula leporatu.”

Nerea Manzisidor (Beasaingo EH Bildu): “hainbat bozeramaile egin dira baina esan duzu erabakiak partekatuz hartu direla. Bozeramaile pare bat izan dira premiazkoak, batzordetik atera eta Diario Vascon ikusi genuen publikatu zela udalekuarena. Ez jakitetik, bozeramaile taldea egin zen eta egun berean prentsan atera zen. Guretzat ez da politika egiteko modua. Batzorde batean esan zeniguzun gure lana ez dela proposamenak egitea.”

Alkate jaunak esan du hori bere garaian esan zuen bezala hori ez dela egia.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Guk esaten duguna da kudeatzea guri tokatzen zaigula. Aurreko plenoan ere salatu egin zen egia ez den zerbait.”

Nerea Manzisidor (Beasaingo EH Bildu): “Hori momentu batean esan egin zenuen. Agian haserreko momentua izan zen. Esan zenuena zen gure lana gobernuak egiten duena kontrolatzea dela. Guk krisi mahaia osatzea eskatzen genuen gure ustetan

agente gehiago inplikaturik egon behar direlako gizarte ongizatea, udaltzaingoa. Gertatu zaigu atzetik informazio bila joan beharra izatea. Zuek zaretela kudeatzaileak eta zuek erabakiko duzuela argi dugu, gehiengoa duzuelako, baina Udala denok osatzen dugu et guztiok izan behar dugu denbora proposamenak aztertzeko. Bozera maila taldea bai, informazioa bai, batzuetan azkeneko momentuan. Oposizio bezala salatzea dagokigu eta proposamenak egitea. Legealdian proposamen ugari jarri ditugu mahai gainean, elkarlanean udal gobernuarekin batera aurrera ateratzeko eta hori, gure helburua delako Beasain hobeagoa eraikitzea, herritarrek kontuan izanda. Boluntarioak ez zenituen ikusten eta gero zu ibili zara boluntarioen bila. Askotan gure proposamenak aztertzeko ere ez duzue denborarik hartzen. PSOEkin batera diru laguntzetako mahai sortzeko eskaera egin genuen eta ezezkoa esan zitzaigun. Merkatarien bilerara joatea zilegi zela esan zitzaigun, baina gero ez zitzaigun deialdirik pasa eta hori da ez duzuelako gu joaterik nahi. Beste herrietan nola jokatu duten horrek balio dezala ikasteko eta ez gure jarrera aurpegira botatzeko.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik nahiago dut gure eredua eta ez beste herrietakoa. Nire sententzia da harrapaketan ibiltzearena.”

Hasier Agirre (Beasaingo EH Bildu): “Esan dezu dagoen estruktura aprobetxatu dela. Hasieratik, guk salatu dugun estruktura: *“Junta de portavoces, es un órgano que no consta en ninguna de las normas y sus funciones son las de adoptar declaraciones institucionales.”* Etxe honetan aldiz, herramienta lan nagusia da. Gehiegizko erabilera egiten da eta dituen funtzioak gain.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Plenoak erabaki zituen funtzioak zeintzuk diren eta funtzio horiek burutzen ditugu. Alderdi batek bozera maila izatea, iruditzen zait zerbait esan nahi duela. Ikusita beste legealdian nola funtzionatu den batzordeetan, orain legeak esaten duen denborarekin ematen da informazioa gehienetan. Akatsak egon daitezke, noski. Egia da legeak gero eta txoten gehiago eskatzen dituela eta denontzat zailagoa da, baina horrek ez du kentzen legeak aipatzen dituen 48 ordu lehenago informazioa ematen ez denik batzordeetarako. Askotan erabiltzen da bozera maila batzordea informazioa aurreratzeko, hain zuzen ere, batzordeetara joango dena. Ez dut uste bozera mailaren erabilera abusiboa egiten denik.”

Hasier Agirre (Beasaingo EH Bildu): “Funtzionamenduaz, bakoitzak bere balorazioa egingo du. Gure ustetan oposizio nahiko eraikitzailea egiten ari gara.

Leire Artola (EAJ-PNV): “Lehen meritua espezifikoei buruz galdetutakori erantzunez esan, ez dela brigadakoa baizik eta Udaltzainen subofizialearena.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Brigadara jo dut pertsona batekin gehitzeko konpromisoa dugulako.”

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak lau gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.